



OTXANDIOKO UDALA

Ayuntamiento de Otxandio
(Bizkaia)

IFZ P4808500E

5) zbkdun. Ordenantza fiskala: Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasen ordenantza arautzailea.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua

Lurralde Historikoko Hazienda Lokalak arautzen dituen Foru Arauaren arabera, udal honek Eranskikeko tarifetan biltzen diren zerbitzuak eskaini eta iharduerak burutzeagatiko tasak ezarri eta exijitzen ditu, ordenantza honen baldintzetan.

2. artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

II. EGINTZA EZARGARRIA

3. artikulua

Udal Administrazioak zerbitzua benetan eskaini edo iharduera burutzea da egintza ezargarrria, bai horrela eskatua izan delako, bai partikularren ekintza edo ez egiteek zeharka horrela behartu dutelako.

III. SUJETO PASIBOA

4. artikulua

1. Zerbitzuak edo iharduerak eskatu edo horien onuradun gertatzen diren Lurralde Historikoko Zergetako Foru Arau Orokorreko 33. artikulua aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak hala nola entitateak izango dira Sujeto Pasibo, zergadun gisa.

2. Zergadunaren ordezkariak izango dira:

a) Eraikinetako jabeak, etxebizitza edo lokalen erabiltzaile edo okupatzaileak erasan edo horien onurako diren zerbitzu edo iharduerangatik ezarritako tasak direnean, eta horiek, kasua balitz, beharrezko onuradunei ordainarazi ahal izango diete.

b) Suak itzaltzeko zerbitzuak emateagatiko tasetan, arriskuaren Aseguro Etxe edo Entitatea.



OTXANDIOKO UDALA
Ayuntamiento de Otxandio
(Bizkaia)

IFZ P4808500E

5. artikulua

Hurrengo hauek dute tasa ordaindu beharra:

- a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo ihardueretan, eskaera egiten dutenek.
- b) Partikularrek eskatu gabe baina beren ekintza edo ez egiteengatik sorturiko zerbitzu edo ihardueren kasuan, aipatu ekintza edo ez egiteak egozgarri zaizkionekoak.

6. artikulua

Ordenantza honetatik eratorritako tributu-zorrei dagokienean eta sujeta pasiboarekin batera, Tarifak aplikatzeko arauetan aipatuko diren pertsonak izango dute zorren erantzunkizuna.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak, oro har aplikagarri diren xedapenetan ezarritakoaren arabera izango dira.

V. OINARRI EZARGARRIA

8. artikulua

Dagokion tarifaren arabera zerbitzua gauzatzen deneko unitate bakoitza izango da oinari ezargarria.

VI. KUOTA

9. artikulua

Kuota zehazteko aurreko artikulutik ateratzen den oinarriari Eranskinetako tarifiari agertzen den karga-mota aplikatuko zaio, tarifaren aplikazio arauak jarraiki.

VII. SORTZAPENA



OTXANDIOKO UDALA
Ayuntamiento de Otxandio
(Bizkaia)

IFZ P4808500E

10. artikulua

Tasa zerbitzua edo iharduera burutzen denean sortzen da.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRUSARTZEA

11. artikulua

Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzagatik egokia den likidazioa egingo du eta likidaturiko zenbatekoa eskudirutan sartuko da, Tarifa desberdinetan azaldutako exakzioen Arau berezien arabera.

IX. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, eta bere Eranskina, bertan azaltzen den datan onartu zen behin betirako, 1990eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela segituko du aldatzea edo derogatzea erabakitzen den artean.